ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2018ko ekainaren 22a, ostirala • 72 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## LAUDIOKO UDALA

**Zerbitzu publikoak eman edo aktibitateak egiteagatiko tasak arautzen dituen 7 zenbakia duen ordenantza fiskala eta udal zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen 9 zenbakia duen ordenantza fiskala aldatzea, prezio publiko berri baten sorreraren bitartez. Behin behineko onarpena. (Espediente: 2018/2/S893)**

Laudioko Udalbatzak, 2018ko ekainaren 7 egunean egin zuen osoko bilkuran, onartu egin zituen behin behineko izaeraz zerbitzu publikoak eman edo aktibitateak egiteagatiko tasak arautzen dituen 7 zenbakia duen ordenantza fiskala eta udal zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen 9 zenbakia duen ordenantza fiskala aldatzea, prezio publiko berri baten sorreraren bitartez.

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 16. artikuluan ebatzitakoarekin bat, jakinarazten da behin behineko izaeraz onartu den ordenantza fiskaletan bi tasa berri aipaturiko sorrerako testua, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49-b). artikuluan erabakitakoarekin bat (41/1989 Foru Arauko 50. artikuluarekin bateratsu), jendearen eskura jarrita daudela, Udaletxeko Ogasun eta Ondarea Arloan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hogei eta hamar (30) eguneko epearen barruan, herritar interesatuek goki irizten dituzten erreklamazioak aurkeztezko; azpimarratu behar da erreklamaziorik ez bada aurkezten erabaki horren aurka erakustaldiaren epearen barruan, erabakia behin betiko onartutzat hartuko dela.

Laudio, 2018ko ekainaren 14a

*Alkate-udalburua*
*JON IÑAKI URKIXO ORUETA*



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2018.06.22 05:41:18 Z